

Funtsezko jarduerak:

→ *Zeintzuk dira egin behar dituzun gauza garrantzitsuenak zure proiektua funtziona dezan?*

Gure funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, txipak sortzean zentratzen gara, beharrezko materialak lortuz eta punta-puntako teknologiako produktu bat diseinatuz, gure bezeroentzako onurarik onenekin.

Hurrengo funtsezko jarduera bezero bakoitzari produktua modu seguruan ematea da, gure garraioen bidez.

Guretzat oso garrantzitsua da produktua nahi duen orok lortzea, uste baitugu gure ideia oso garrantzitsua dela giza bizitzetarako.

Hala ere, garrantzitsua da enpresaren kudeaketa eta mantentzea, azken produktua egokia izango dela ziurtatzeko, gure osasunerako hain garrantzitsua denez, behar bezala eginda egon behar baitu.

Gure webgunea funtsezko baliabidea da gure bezeroen arreta erakartzeko eta gure enpresa eta produktuarekin zerikusia duen guztiaren berri behar bezala izateko.